

Langileak eta nagusiak

Mirari Martiarena

Bi langileren alaba naiz; aita eta ama bezala langile. Umetatik irakatsi digute lanari beldurrik ez izaten, dagoenari heltzen: baserrian, tabernan, ikasketekin lotutako lanetan... Inork ez duela ezer oparitzen. Norberak egindakoak balioa duela eta botatako izerdiak ematen dituela fruituak. Lana bizitzaren erdigunean jartzen dugula esatea ez da berria eta, horrez gain, gure elkarrizketen zati handiena izan ohi du. Gehiegizko lana, erretzen gaituena, gustura egiten duguna, langabezia eta hitz magikoa: krisia.

Krisi ekonomikoa noiz hasi zen ere ahaztu zaigun honetan berriz iritsi da maiatzaren 1a: Langilearen Nazioarteko Eguna. Soldata duinak dituzten lan duinak eskatuko

ditugu kalean. Sindikatuek biharko deituta-ko manifestazioetako irudiei begira, jatetxe garestietan, gorbatahunek topa egingo dute *cognac* kopekin, izorratzen dituzten guztiengatik. Bai jaun-andreok, Langilearen Nazioarteko Egunean nagusiek jai egiten dute. Eta nirea bezalako mihi gaiztoek ea noiz-bait lanik egiten duten esango lukete jarraian.

Nagusiak asko irabazteko, langileak gutxiago irabazten duela ikasi nion lagun bati. Lege hori asmatu zuenak bazekien zerbait eta ez dut uste langilea izan zenik. Langilearen problema hori izaten baita: lana egin behar duela. Nagusiarena, berriz, pentsatu egin behar duela langileak nola zukutu garajeen edukiko duen Audi berria erosteko.

Legeak egiten dituztenak, nagusiak izanda-koak, izango direnak edo nagusien seme-alabak dira. Beraz, ez pentsatu inoiz langileen alde egingo dutenik. Ezta euren seme-alabak Lanbideko zerrendetan apuntatuta daudenik ere.

Lan kontuekin zaila zait baikorra izatea. Gauza bat baita lanari beldurrik ez izatea eta bestea inposatzen diguten guztiari amen esatea. Konformismoan bizi den belaunaldi bat sumatzen dut inguruan eta batzuei lanera joateagatik ordaintzea baino ez zaie falta. Bada, ordea, konformismo horretan erortzeko prest ez dagoen jendea ere, eta horregatik atera behar dugu bihar kalera. Ez gaudela konforme esateko eta batzuei *cognac*-a kontrako eztarritik joateko. •

Otoitz antzuak

Koldo Sagasti

Palestinako bidaia batean Victor Bartasherekin solas egiteko aukera izan nuen. Topaketan Betleemeko alkatea zenak orduko aita santuarekin bizitako pasadizo bat kontatu zuen. Sineskeria kristauaren arabera, eta Jesukristo jaio omen zeneko hiriko udalburua izanik, politikari ezkertiarak Eliza Katolikoaren nagusiari harrera egin behar izan zion. Bere karguaren betebeharrari men eginez, beraz, Joan Paulo II.arekin batzartu zen. Elkarrizketa Vatikanoko agintariaren esku hartzea eskatzeko baliatu zuen Bartashek. Azaldu zion zein bizi baldintza latzak pairatzen dituzten Betleemen, harresiz eta koloniaz inguratuta, okupazio

militar bortitz baten menpe, bizi baldintza duinak bermatzeko gutxieneko baliabideak murriztuta... eta erregutu zion bere karguari dagokion boterea balia zezala egoera hori nolabait arintzeko. Wojtylaren erantzuna argigarria bezain antzua izan zen: «Ez kezkatu, egingo dut otoitz zuengatik».

Formak aldatu omen dira geroztik. Zenbaitek uste du hierarkia katolikoaren zuzendaritzan izandako erreleboak haize berriak ekarri dizkiola erakundeari, Francisco aita santuak egindako hainbat keinuk bultzada ematen diotela Elizaren egitura herdoilduak behar duen eraldaketari. Baina keinuak, harago joan ezean, bere horretan geratzen dira, keinu hutsale-

tan. Azkena Lesbos irlara egindako bisitarena. Bergogliok hamabi errefuxiatu salbatu ditu erbestearen infernutik Egoitza Santuan ostatua emateko, gainontzeko milioiak lokatzetan murgilduta utzita. Hori bai, horien alde otoitz egingo du, segur aski, oso gogotsu gainera, bere aurrekariak palestinarren alde egin zuen bezala. Itxurakeria.

Auzo lotsa ematen du munduko botere faktiko dirudunenetako baten buruzagiak, hamabi gizajori ogi apurrak emanez bere erantzukizuna zuritu nahian. Neuk ere egingo dut keinu antzu bat Eliza salbatu daitekeela sinesten duzuen horiekiko begirunez: egingo dut otoitz zuengatik. •